

33. INFORMAZIO FITXA PASEALEKUA

DONE JAKUE BIDEA: ITSASLUR

KOKALEKUA

Udalerrria

Muskiz

Udalerrriaren kod.

071

Eskualdea

Bilboaldea

Kartografia

Bizkaiko Foru Aldundia (1:5.000)

Orriak

03758

FITXA TEKNIKOA

Homologatua

EZ

Gutxi gorabeherako denbora

50 minutu

Gehieneko desnibela (m)

45

Luzera (km)

2,25

Zailtasuna

Erraza

Trazatu mota

Lineala

Ibilbidearen hasiera

Pobeña


Ibilbidearen amaiera

Covaron

Interesa

Paisaia, etnografia, natura

Ibilbidearen profila



ATZOKO ETA GAURKO BIDEAK BIZKAIAN

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundeak

Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundeak

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

Mapa/Krokisa



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

Nola Iritsi

Itsaslur pasealekurako sarbidea Pobeñako aparkalekutik egiten da, La Arena hondartzaren ondotik (Santandererako A-8).

Deskribapena

Bidea Pobeñan hasten da, baselizatik hurbil. Hasieran Done Jakue bidearen seinalea duten malda handiko eskailera batzuk igo ondoren, antzinako bagoitxora iritsiko gara; hori, lehen, minerala zamatze-lekuraino eramateko erabiltzen zen, eta orain pasealekutzat erabiltzen da. Ibilbideak ez dauka galtzeko arriskurik, eta kostalde osoaren gaineko ikuspegi bikainak eskaintzen ditu, Covaron-eko atsedenekura iritsi arte.

IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK

Trazatua

Ibilbidea malda handiko eskaileretan hasi eta atsedenlekuraino doa, zementuzko bide batetik.

Gurpil-aulkietarako gauza

Bai, baldin eta Covaronetik egiten bada, Pobeñako eskailerak saihestuz.

Norabideko seinaleztapena

Done Itsaslurren seinaleak daude, horman jarritako baldosan, Pobeñatik eta Covaronetik hurbil. Ibilbidearen hasieran, Done Jakue bidearen geziak dituen zutoina dago eta horrek Covaronerako nahiz Ontonerako distantzia adierazten du.

Informazioko seinaleztapena

Ibilbide osoan, meatze-jarduerari, algen erauzketari, geologiari, florari eta abarri buruzko informazio panelak daude.

ARGAZKIAK

Kostaldea Covaronetik ikusita.



Norabideko seinaleztapena ibilbidearen hasieran.



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

Informazio panelak Itsaslurren trazatu osoan.



Ibilbide-zatia Pobeñatik hurbil.



BALIABIDEAK

Sorospeneko Andre Maria

Baseliza hau beste garai batean San Pantaleon uhartea izandakoan kokaturik dago, artez eta ereinotzez inguratuta. XVIII. mendeko bigarren erdian eraiki zuten. Lehenago, Salazar familiak eraikitako gotorlekutxo zegoen bertan.


Mineralaren zamatze-lekua

Bizkaian eraikitako lehenengoa da, eta minerala itsaso zabalean zamatzen zuen bakarra. Tipologiaren aldetik, esekitako zamatze-lekua da eta José Mac Lennan de Minas S.A. enpresaren aginduz eraiki zen, gutxi gorabehera 1870ean, Amalia Vizcaína, Demasía eta San Francisco meatzeei zerbitzua emateko; bertako minerala kostako 3 km-ko trenbide batean iristen zen, zamatze-lekuaren oinean kokaturiko biltegi batzuetaraino, eta 1930ean horien edukiera handitu egin zen. 1963ra arte egon zen funtzionamenduan, eta, gaur egun, zamatze-lekuaren oina kontserbatzen da: itsasora mailakaturiko aurrealde handi baten bidez irekitako harlangaitzezko masa handia. Bagoitxoak zirkulatzeko erabiltzen zen zurezko oinarria eta berori euskarritzen zuen metalezko armazoiaren zatirik handiena desagertu egin da.



Zonako geologia

Ibilbidea egokia da fenomeno geologikoak ikusteko; adibidez, higadura edo tolesturen eraketa. Ibilbidean kokaturiko paneletariko batek horri eta zonako geologiari loturiko beste alderdi batzuei buruzko informazioa eskaintzen digu.



Algen erauzketa

Ibilbidean metalezko egitura batzuk ikusiko ditugu eta horiek, lehen, algak ateratzeko erabiltzen ziren. Algek erabilera asko dituzte: ongarrietan, elikaduran, medikuntzan edo ehungintzan.



Paisaia

Ibilbideak Kantauri itsasoko kostaldearen, La Arena hondartzaren eta zonako labarren ikuspegi bikainak eskaintzen ditu.



Meatze-aztarnak Covaronen

Ibilbidearen amaieran kokaturiko atsedenlekitik, meatze-jardueraren aztarna batzuk ikusten dira; esaterako, Mc Lennan garbitokia edo Josefa meatzearen antzinako instalazioak.



EKIPAMENDUAK

Aparkalekua

Pobeñan eta Covaronen aparkalekua dago.

Atsedenekua

Covaronen dago eta iturriak, erretegiak, aulkiak nahiz mahaiak ditu.

Haurren jolasak

Covaronen daude, ostalaritzako establezimenduetatik hurbil.

ZERBITZUAK

Ostatua

Zierbenan eta Muskizen nekazaritza-turismoak daude.

Tabernak eta jatetxeak

Pobeñan eta Covaronen ostalaritza eskaintza handia dago.

Garraio publikoa

Bizkaibusen A3321 lineak Covaron eta La Arena hondartza lotzen ditu; A3335 lineak Pobeña eta Covaron lotzen ditu, baina bere zerbitzuetariko batzuetan bakarrik.

OHARRAK

Ibilbidea, Done Jakue bidetik joanez, Pobeñan hasi behar bada ere, aurkako noranzkoan ere egin daiteke, eta horrela, Pobeñako malda handiko eskailerak saihestuko ditugu.